



MAGIA ETA OPERA GAZTETXOENEN GOZAGARRI

Tolosan haurrentzako opera izan zuten atzo ikusgai, eta Altzon, berriz, magia ikuskizunarekin ederki igaro zuten >4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2008-10-12**

VIURTEA 1.532.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Bezperan hartu zituzten perretxikoak 40 lagun inguruk; jende ugari gerturatu zen erakusketa ikustera. ESTI EZEIZA

PERRETXIKOEZ GEHIAGO IKASTEKO AUKERA ALPINOKOEKIN

TOLOSA Plaza Zaharrean mikologia erakusketa antolatu zuen atzo mendikarteak; 262 perretxiko mota desberdin izan ziren ikusgai 6



Jendea goizean goizetik hurbildu zen azokara. ESTI EZEIZA

Jendetza Beotibar pilotalekuan, II. Stock Azokan.



Jende ugari bildu zen paella jatean. ASIER IMAZ

Berazubiko jaien azken eguna, gaur,



EGUZKILORE

www.eguzkilorejya.com

Eguzki

DONOSTIAN Herriari 13, Alderdi Eder Tel. 943 43 15 58
GALDAKAOAN eta AMOREBILIAN Tel. 94 673 18 31

» **Uzturretik**

Iratxe Etxebeste

Wilhelm von Humboldt-ek idatzi zuen funtsean beste pertsonetik harremanek ematen diotela zentzua bizitzari. Aste honetan irakurri dut egunkarian, eta lehendabiziko aldia ez zen arren, esango nuke ez didala sekula gogoa batek pentsalari alemaniarrenaren moduan eragin.

Sarritan, guk, ez ditugu inguru-koak behar bezala zaintzen. Ohar-kabeaz goaz aurrera, eta bitartean, ordu bat, egun bat, urte bat ere joan

daiteke, edo gehiago horrela, kon-turatu gabe lurra ez duela deus ematen aldeaz aurretik eraiten ez bada.

Egia esan, gauza horiek ez dira beti matematikoak izaten. Ereinda ere, gerta bailiteke uzta-rik ez jasotzea, ura ahaztu dugulako edo baldintza klimatikoak egokienak ez izateagatik.

Gauza bera gertatzen da pertsonen arteko harremanetan. Nola edo hala lantzen direnean, ez dugu beti bestearen aldetik gauza bera jasotzen, eta horrelakoetan triste-tu, amorratu edo haserretu egiten gara, pentsatu gabe gainerakoek ez dutela zertan guk bezala sentitu.

Badira hiru urte azkeneko izuki nuenetik, eta aste honetan egon gara berriro. Ustekabean, parte

onekoa ez den egoera batek bil-tzatuta izaki, erreakzionatzeko modurik ez dut izan oraino. Arra-paladan bizi garelako izango da, baina ematen du denborarik ez dela igaro. Argazki batean bezala izoztuta egon gabela, eta, gurekin batera, izoztuta egon direla ordutik honako guztiak.

Besarkada batez elkar agurtu, eta hizketari ekin genion. Luze ari-tu ginen lanaz, familiaz, gizarte gaiez... Gutxienez jardun genuen pare bat orduz. Eta, gero, agurtze-an, txantxetan esan zidan egongo gabela beste hiru urte pasatu aurre-tik.

Batzutan gertatzen da hori ere. Funtsean, bizitzak ematen die zentzua beste pertsonetik harre-manei.

Funtsean

Etorkinen lan baldintzak

» **Iritzia****Malen Etxea emakume etorkinen elkarte**

Malen Etxea emakume etorki-nen elkarteak kideontzat beharrezkoa da etxe-langileek ber-txieneko baldintzak finkatzea. Gure proposamena langileen sek-tore honetan zentratu dugu, gure ustez, Europako ongizatearen gi-zartea taxutzen duen sistema ka-pitalista patriarkalaren errealtate sozial eta ekonomiko honek lane-an zokoratu egiten dituelako, po-bretutako herrialdeetako emaku-meak *emakume etorkinak* ilegal-tzat jotakoak, *paperik gabek* eta ondorioz eskubiderik gabek. Iku-sezin bihurtzen baititu eta neo-es-klabotzat har litezkeen lan bal-dintzetara makurtzen.

Erakundeen aldetik, Euskadin ezin zaio eman konponbide inte-gralik gai honi, Atzerritarrei bu-ruzko Legearen irismena ez delako Autonomia Erkidegoaren es-kumenekoa eta horregatik jotzen dugu herri honetako gizarte eragi-le guztien sentsibilitatera, politikoen-gana, sindikatu-eta eta erakun-deetara. Guztion artean begien bistara atera dezagun etxeetan lan egiten duten emakume etorkinen egoera eta akordio honi zabalpena emateko iritzi korronte bat sor-tzen lagundu dezaten, azken bate-an, gaur egun daukagun gizarte-ari buruz eta etorkizunean eduki nahi dugunari buruz eztabaida xume bat sortzen lagundu dezan.

Lan baldintzen inguruko proposamena

Kontuan hartuta Bizkaiko Etxe-langilen Elkarteak gai honen ingu-ruan dituen proposamenak eta Malen Etxea emakume etorkinen elkartearen azken lau urteetan ar-a-zo azaleratzeko egin ditugun aha-leginak, honako hau proposa-tzen dugu:

Etxe-langileek eskubidea dute hilean 900 edo 1.000 euro baino gutxiagokoa izango ez den lansa-ria jasotzeko.

Astean egun eta erdi, eta egune-an bi ordu libre izateko eskubidea dute.

Urtean aparteko bi paga jasotze-ko eskubidea dute eta 30 eguneko oporraldia izateko ere bai.

Gainerako langileek dituzten jai egun berberak hartzeko eskubi-dea dute.

Gaueko lana egiten den kasue-tan (Gaueko 9etatik goizeko 8eta-rra) lana, enplegatzaileen etxean lo egitea bakarrik baldin bada, la-gun egiteko, soldadak ez du izan behar hilean 705 eurokoa baino txikiagoa. Baina menpekotasuna duen pertsona bat gauez zaindu behar bada, soldadak ezin du hile-an 880 euro baino txikiagoa izan.

Asteburuetan lan egiten duten etxe-langileen kasuan, enplega-tzailearen etxean lo egiten badute ostrial gauean eta larunbat gauean, soldata asteburu bakoitzeko 150 eta 180 euro bitartekoa izango da, eta ospitaleetan egindako gaueko lana ez da ordainduko gaueko 70 euro baino gutxiago.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu, *gutxieneoak* finkatzen hainbeste saiatu gabela hori delako modu bakarra, azpikoa ekonomia-ri lotuta, legezko arau guztietatik kanpo eta irregulartasuna norma bihurturik dagoen lan sektore honetan, ekitate soziala eta *gutxiene-ko* baldintzak bermatzeko.

Bat egiten duten elkarte eta eragileak

Euskadiko etxe-langileentzat gu-txieneko baldintzak ezartzeko proposamenari ondorengo elkar-teak, erakundeak eta eragileak atxikitzen dira:

Malen Etxea emakume etorki-nen elkarte; Justizia eta Bakea Donostiako Elizbarrutiko giza idazkaritza; ELA sindikatu; LAB sindikatu; ESK sindikatu; Bilgune Feminista; Gipuzkoako SOS Arrazakeria; Garipen emakume etorkinen elkarte; emakumearen laguntzarako Eraldatzen elkarte; Esperanza Latina elkarte; Kulta-rrarteko Adiskedetuak elkarte; Donostiako Mi Nuevo Potosi bol-iviarren elkarte; Anitzak Ekimena elkarte; Emakumeak Dibertsita-tean elkarte; Guardetxa Banda Bat elkarte; Ruso Parlante Kolo-kol elkarte; Guztion Artean sene-galdarren elkarte; eta Haurralde Fundazioa.

A Argazki zaharra

Aspaldiko ohiturak gogoratzen

TOLOSA • Alpino Uzturre mendi elkarteak bere 50. urteurrenaren baitan atzo ekitaldi berezia anto-latu zuen, mikologia erakusketa. Hain zuzen ere, hainbat lagun joan ziren aurreko egunean pe-rretxikoetara, eta denera, guztien artean 262 mota desberdin to-patu zituzten. Horiek jarri zituz-tzen Plaza Zaharrean jendeak ikus zitzan. 70. hamarkadan oso ohi-koak ziren horrelako erakusketak eta lehiaketak, eta Alpino Uztur-rek atzokoarekin nolabait be-rreskuratu egin nahi zuen ohitura hori. Garai haietan, Euskal herri osoan izaten ziren horrelakoak, baina Tolosakoa zen garrantzi-tsuenetakoa. Hala, Alpino Uztur-re elkarteak kideek bertako nahiz kanpoko mikologia lehi-aketa askotan parte hartzen zu-tzen, eta irabazi ere bai. Modu ho-netan, perretxikozaletasuna asko zabaldu zen; Irudian garai haietako une bat. HITZA

**H Hilberria****KATTALIN ZABALA OLAZABAL**

Izar bat agertu da dizdiraz zerran keinuka ari zaigu Oresa aldean KATTALIN seaskan dago bere lo gozoan dizdirak argi dezala betirako gure gogoan

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta **Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Lurrak neurtzen



» Hitzalean

Juan Cruz Igerabide
(Aduna, 1956)

Kontua da lurrak neurtzen ibiltzen naizela. Beharbada gaztelu kaffiano batean bizi beharko nuke, baina kontua da Iruñeko alde zaharreko apartamentu txiki batean bizi naizela. Lan faltarik ez dut; azken aldian, ordea, nire lanbidea aldatzen ari da; errekonbertsioa, zera; birmoldaketa, alegia. Murtzia aldetik maiz deitzen didate, nahiz eta azken krisialdi honekin hori ere behera datorren arin. Gehienetan, honetarako deitzen didate: neur dezadala ea zenbat nekazaritzako lursail birmolda daitezkeen, urbanizazioak eta golf zelaia egiteko. Hori bidezkoa den ala ez, nire ardura ez da; kontua da ondo ordaintzen didatela eta turismoa debalde egiten dudala.

Hantxe nengoen, bada, Murtziako San Javier aireportuaren kanpoaldean, taxiren bat noiz agertuko, ni baino bizkorrago ibili baitziren beste batzuk, eta batere gabe geratu ni. Beraz, pazientzia ederrean aulki batean eseri, eta Txejov-en liburu bat atera nuen, ipuin bat irakurtzeko: *Gehitxo, aukeran* du izenburu. Inor ez zebilen inguruan. Taxirik ez ote ziren itzuliko susmatu nuen, azken hegaldia baitzen ni iritsitako hura.

Hala nengoela, hor agertu da morroi bat zalguri zahar baten gainean, zaldi zaharrago batek tirara. Morroiak jantzi bitxia zerman: alde batetik hippie samarra, eta bestetik igeltsero baten itxurakoa. Boxeadore aurpegia, harena. Aurre-aurrean geratu zitzaidan, burlaizez:

-Zer dugu ba? Denbora pasa?

-Taxi baten zain nago, jauna.

-Horixe egon. Liburu potolo hori guztia amaituko duzu, eta hala ere hortxe jarraituko duzu.

Izuak jota begiratzen diot. Aireportu honetan Txejov osoa irakurri arte itxaron beharrak ez dit batere grazia egiten.

-Atsegin baduzu, nagusi, zortzi eurotxoren truke nahi duzun lekura eramango zaitut.

Begiak arranpalo begiratzen diot.

-Ez haluzinatu, nagusi. Soroe-

tan barrena, gurdi honekin, taxian baino azkarrago joko dugu Murtzia. Baina, berorri ez bazaio iruditzen behar bezain eroso, eta nahiago badu hemen itxaronez nazkatzea...

Lur-sailen luze-zabal handiaren aurrean hasperen egiten dut, lur-neurtzaileok soilik dakigun moduan; liburua itxi, zalgurdia begiz usnatu, morroi bizkarzabalari begi ertzetik begiratu, pixka batean hausnartu... Erabakia dago; berarekin noa.

-Rosa Victoria hotelera, Avenida del Rocío...

-Ezaguna dut, nagusi. Aurrera!

Bizkarzabalaren adiskide egin nahirik, umorez ekin diot:

-Arraio! A zer gurdia zure hau. Ez da antzematen zein den aurrea eta zein atzea.

Atzeratua banintz bezala begiratzen dit morroiak.

-Zer ez duzu ulertzen? Zaldia-iren isatsaren parean, ni nagoen honetan, aurrealdea; eta zu eseriko zaren horretan; atzealdea. Hain zaila al da?

Irribarre behartu bat egin, eta, gatzetasun-plantak eginez, nire puskak eserlekura airean bota eta jauzi batez igo naiz, belauinak eman didan zartada disimulatu.

-Aurrera, jauna—esan diot.

Bizkarzabalak eskua luzatu dit:

-Aldez aurretik ordaindu behar da, nagusi.

Hamar euro eman dizkit.

-Zuretat bueltak.

-Eskerrik asko, nagusi.

Eserlekuan ahal dudan erosoen jarri, eta ibilaldi luze baterako prestatu naiz.

Umorez hartu beharra dago, esaten diot neure buruari.

Ez noa hain gaizki ere zalguri honetan. Hala ere, ez zait gustatzen nola begiratu dien morroi horrek nire puskei eta hamar euroko billeteari eta nire diru-zorroari. Hemen, soro zabal hauetan, ez dabil arimarik. Eta laster ilunduko du. Ez dakit ideia ona izan ote den tramankulu zahar honetara igozea. Baina, zer egin? Gau osoa aireportuan geratu?

Tira, umorez hartu beharra dago, bada. Lur-neurtzailearen begiez neurtzen ditut distantziak; mendian behera gatoz, eta laster gara Murtziako barretzetan barrena. Honezker, ez gara egunez iritsiko jomugara.

Mendia jaitsita, zelai ilun zabalera iritsi gara; amaierarik ez duela dirudi. Hau hotza! Murtzian hotza? galdetzen diot neure buruari, harriritua: Bada, bai; Murtzian ere badaki haize hotzak jotzen, eta hormaturik uzten zaitu, batez ere beldurrak airean baldin bazoaz.

Han urrunean, urbanizazioetako argiak ikusten dira, eta horrek berak ordeka luzea aho beltz bihurtzen du. Bizkarzabalak esan du talaria bezain bizkor iritsiko garela, baina gutxi gorabehera aritu da inondik ere. Linterna bat piztu du morroiak. Argi horrek are iluna-

goa egiten du ingurua. Hau bakar-dadea! Ez zuhaitz bat, ez etxe bat. Bat-batean eraso egin eta dena kenduz gero, inor ez da jabetuko, garrasika hasita ere. Eta bizkarzabala zerbait prestatzen ari bada? Boxeadore-gorputz horrekin, hatz batez botako ninduke hankaz gora.

-Adiskide! Nola duzu izena?

Bizkarzabalak kurrinka batez erantzun dit, eta ez dut ulertu ondo, baina ez naiz ausartzen berriro galdetzer.

-Adiskide! Hau segurua izango da, ezta? Ez dira ba hemen banda batekin, txarrrera jota, kontuz gero!

Bizkarzabalak kurrinka egin du berriro; ez dagoela kuidadorik esan duela iruditu zait.

-Ni euskalduna naiz, gero! Ez diot ezeri beldurrik! —bota diot—. Euskalduna! Entzun? Euskaldun batekin, txarrrera jota, kontuz gero!

Hemen norbait bidera ateratzen bazaigu, erakutsiko diotnik zenbat diren bi eta bi. Badaezpada, beti eramaten dut neurekin mendiko aitzo handi bat maletatxo honetan, ordenagailu txikiaren ondoan. Zer aitzo, gero! Aihotza ere bada hau, zera! Eta zorrotz-zorrotza. Erakutsi hutsarekin egiten du ebakia honetik. Kontuz gero nirekin!

Zalgurdiak kurrinka egin eta eskuinera jo du. Nora narama honetik? Gero eta larriago nago. Menditik jaitsi garenetik, zuzen gindoraz, eta, orain, bat-batean, zeharrera jo du. Ez dira ikusten urbanizazioetako argiak. Nora ote narama? Beste batzuekin hitzartuta ote dago? Hau komedia! Lasaitu beharra dauka nola edo hala.

-Adiskide! Arriskurik ez dagoela diozu? Ba, nahiko nuke irtengo bala-litzaizkigu batzu-batzuk lapurreta egiteko asmoz. Ikusiko lukete zer den ona. Odola bero-bero daukat oraintxe. Aitzoa ateratzen badut, ez dakit zer gertatuko den.

Bizkarzabalak eztula egin du, eta zaldiari eragiten dio. Nik ezin dut neure burua kontrolatu.

-Etor daitezela! Baldin badira! Entzun? Begira zer aitzo luzea! Entzun?

Gero eta larriago nago, kontrolik gabe; mingaina bakarrik ari zait. Morroia konturatu egin da. Zergatik begiratzen du atzera noiznahi? Honek zerbait nahi du.

-Adiskide! Zergatik eragiten diozu horrela zaldiari? Gero eta azkarrago goaz.

Ezin dut kontrolatu mingaina.

-Adiskide. Begira labana. Kontuz nirekin gero!

Ordenadore-zorroaren kremailerari tira eta hotsa atera dut. Bat-batean, bizkarzabalak jauzi egin du zalgurditik.

-Lagundu! Lagundu! Eraman zaldia eta gurdia, baina utzi bakean. Lagundu!

Zaldia bakarrik doa ilunpetan. Linternaren argia beste alde batera urruntzen ari da. Zer egin orain? Nola edo halazutitu, eta uhalei heldu diet, zaldia geldiarazteko. Geldiarazi ditudalarik, zer egin ez dakidala nago. Ezin dut bakarrik aurrera egin. Nora jo ez dakit, eta, gainera, zaldia eta zalgurdia lapurtzea leporatuko lidakete. Zer egin?

-Adiskide! Non zaude? Entzuten didazu? Erantzun, mesedez. Zatoz!

Ordu erdi bat eman dut oihuka. Jainkoaren! Negarrez hasi naiz.

-Adiskide! Mesedez!

Oin-hotsa.

-Zual zara, adiskide? Barka ieza daz! Ergel hutsa izan naiz. Begira: ez dut aitzorik, ez ezer. Ordenadore txiki bat besterik ez da. Barka ieza daz! Osu urdurijarri naiz.

-Ez egin ezer, e? —hurbildu da bizkarzabala.

-Ez, adiskide, ez. Euli bat akabatzeko ere ez naiz—eta gauza. Beldurti hutsa naiz.

-Eta zaude isilik, nagusi, ados? Berebiziko sustoa eman didazu.

Bizkarzabala zalgurdia igo da berriro. Ordu laurden baten buruan, aldatxoko bat igo, eta Murtziako argiak ikusi ditugu. Zalgurdia errepede huts batera irten da, eta ertzetik doa.

Rosa Victoria hotelaren aurrean, beste morroi batek hartu dizkit maletak, eta harri eta zur begiratu digu. Bizkarzabalari eskupeko bat eman diot. Eta han urrunduta, zelaia ilunerantz.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

Magiaz beteriko antzezlanak

ALTZO-TOLOSA ● Antzerki saio berezietz gozatzeko aukera izan zuten atzo Altzon eta Tolosan. Lizarbeko gelan elkartu ziren Altzoko gazte-txoak euren gurasoekin *Magia teiatuetan* ikuskizuna ikusteko. 50 lagun inguru bildu ziren, eta ederki igaro zuten magia benetan existitzen dela ikusi ahal izan zutelarik Begoña Bilbao zuzendariaren lanarekin. Magia beltza edo gaiztoa ere han agertu zen, baina zintzoak irabazi zuten. Tolosan ere gaztetxo ugari bildu ziren atzo arratsaldeko emanaldia ikusteko asmoz. Kasu honetan, haurrentzako opera izan zuten ikusgai, *Kolas mago harrigarria*, hain zuzen ere. Opera Divertimentoren lana da, eta Amadeus Mozart da bere egilea, eta Andoni Martínez antzezlanaren zuzendaria. Bastian eta Bastianaren arteko maitasun ipuina kontatu zuten, eta hemen magoaren lana ere beharrezkoa izan zen. Gaztetxoentzat ere izan zen oparirik, magoak goxokiak banatu baitzituen ikusle-
en artean. A.L./I.T.



Emakumea Pilotari Txapelketa

PILOTA ● Emakumea Pilotari Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatu zen atzo Amasako pilotalekuan. Bost partida jokatu zituzten palistek eta honako hauek izan ziren emaitzak: Redondo-Gurrutxaga bikoteak 30-26 irabazi zuten Etxegia ahizpei. Xole Etxegiak Errastiren ordez jokatu zuen. Bigarren partidari Fernandez-Montes nagusitu ziren 30-22 Pierola-Unanueren aurka. Hirugarren goan 30-16 gailendu ziren Bañales-Nagore Zabala, aurkari bezala Dominguez-Esnal izan zituzten. Azken honek Lucasen ordez jokatu zuen. Laugarren partidari Arriola-Goenaga 24ean geratu ziren Jauregi-Elizegiren aurka. Azken partidari Miren Zabala-Arrondo bikoteak eta Tijero-Urbietak jokatu zuten. Bigarren hauek irabazi zuten 30-21 jardunaldiko azken partidari. A.I.MAZ

Laburrak

Karrera Gipuzkoako EBren koordinatzailea izango da

AMEZKETA ● Orain arteko ildoarekin segitu edo aldatu hautatu behar zuten atzo Gipuzkoako Ezker Batuko afiliatuek, VII. batzarrean, eta aurreneko ildo babestu dute, Antton Karrera amezketararren hautagaiz. Hura izan da azkeneko lau urtean ere Gipuzkoako EBko koordinatzaile, eta atzo botoen %70 lortu zituen.

Urrezko Aizkolariaren finalean da Arrospide

LEABURU-TXARAMA ● Anjel Arrospide irabazi zuen atzo Agurainen (Araba) jokatu zen Urrezko Aizkolari Txapelketaren ligaren jardunaldia. Ondorioz, 21 punturekin, finallerako txartela lortu zuen. Floren Nazabal eta Agurainen arierio izan zuten Donato Larretxearekin neurtu beharko du finalean Leaburuko aizkolariak.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Asteburuetarako zerbitzaria behar dugu. 605 72 77 30.

SALGAI

■ **Intza.** Herriko plazan, 300 urteko etxea garajearekin. Bertako eran sendotuz eraberritu eta

estreinatzekoa. Modu onean salgai. Ezinduentzako egokitua. Landetxea jartzeko aukera. 628 03 07 27 / 646 11 14 85 / 609 21 83 41 / 948 61 06 39.
■ **Depositua.** Inoxidablezko depositoa sagardoarentzat. 360 litro. Deitu 652 75 72 51 telefono zenbakira.

30+10 MINTEGIA

hizkuntza-kudeaketa enpresan

Antolatzailea	Kolaboratzaileak
Makina Erremintaren Institutua Parti-hartzaileak Enpresa eta hizkuntza kudeaketa IGOR CALZADA - Nevada Univ./ NU, MA DANIEL HERMOSILLA - EHU-LPV PILAR KALTZADA - Inoibazque SERGIO MONJE - EHU-LPV Praktika orak EUSKALTEL TALLERS PER LA LLENGUA (Katalunia) AHIZE-AEK UNIVERSITÉ DE NAMUR (Belgika) EMUN-KUTXA Euskara Planak TERMIKER ORIN-LEGATZPI URRUTRONIK IDIKO	Elizkuntza Politika Sailburuordetza Gipuzkoako Foru Aldundia Elgoibarko Udala AHIZE-AEK Produktu eta zerbitzuak ELEKA Dokuzari, dokumentu elkaritzak erabiltzeko teknologia MICROSOFT Euskaraz prestatutako software EMUN Enprezetako euskaradunon kontzientziatzen eragileak, talde esperientzia ANDRES URRUTIA Lege dokumentuak eta notaritzak lanak ESLE-IRONTEC Software librean euskaraz ELHUYAR Euskararen aldeko jarrera positiboak lantzeko prozesu-espereziak

Inskripzioa (beharrezkoa):
www.imh.es - imh@imh.es
Telefonoa 943 74 41 32
IMH, Azkue Auzoa 1 - Elgoibar

txokoa
h

2 sarrera pare zozketan

Bertso-saioa

Tolosako Leidorren gaur, igandea
17:30etan

irabazleak:

- Aintzane Izagirre Agirre (Ibarra)
- Martin Armendariz Mujia (Berastegi)
- Juan Jose Munduate Artola (Irura)
- Olga Villa Basterretxea (Larraul)
- Amaia Larrarte Zabalo (Villabona)
- Xabier Ormaetxea Arsuaga (Zizurkil)
- Antonio Mujika Iraola (Villabona)
- Martin Otermin Iriarte (Anoeta)
- Karmen Iraeta Arsuaga (Tolosa)
- Inmaculada Sagastume Gorostidi (Amezketari)

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue. ZORIONAK!

2 sarrera zozketan

irabazlea:

- Ibai Gabirondo Gaztañaga (Alegia)





Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAINZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25koa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakarik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldateta, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honelaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alia egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

Ekonomia » Gaur ere irekita egongo dira Beotibarko ateak; 10:00etan zabaldu, eta 18:00etan itxiko dute.

ESTI EZEIZA

Kontzertu edo pilota partida izugarri bat balego bezala, jende errenkada luzeak zeuden atzo goizean Beotibar pilotalekuaren atarian. Bertan ospatzen baitzen, Igarondo merkatarien elkarteak antolatutako bigarren stock azoka. Azken hilabeteetan, jendearen ahotan gehien dabilen hitza krisia da, baina asteburu honetan ez da horrelakorik nabaritu Tolosan.

Atzo, 10:00etan zabaldu ziren faktoring-eko ateak, eta ordurako, jende andana zegoen zain atean. Hala ere, antolatuzaileen esanetan, «duela bi urtekoan pilaketa handiagoak izan ziren, jendeak uste baitzuen, berandu joanez gero, ez zuela gauza handiegirik aurkituko». Baina 2006koan bezala, oraingoan ere, erakustokiak berri-tuz doaz, hau da, behin eta berriz, produktua berriak gehitzen dituzte saltzaileek.

Atzo Beotibarrera hurbiltzerik izan ez zutenek, lasai egon daitezke, gaur ere izango baitute horretarako aukera. 10:00etan zabalduko dute stock azoka eta 18:00ak arte izango da zabalik.

Lehendabiziko ordutik jendez beteta izan da Igarondoren II. Stock Azoka



10:00etarako izugarriko errenkadak egin ziren stock azokan sartzeko; jendea erosteko gogo biziz joan zen. E. EZEIZA

**Hamabost merkatal postu**

Aurtengoan 15 saltokik jarri dituzte postuak stock azokan. Hauetatik, bakarra da kanpoko, Ordiziako Ttipi-tpa hain zuzen ere. Arropa da gehien aurkitu daitekeen produktua. Baina horrez gain, osagarriak, oinetakoak, haurrentzako arropa... ere ikusi daitezke.

Gainera, nabarmentzekoa da produktuen kalitate ona. Gehienak marka edo etxe ospetsuetakoak baitira.

Igarondokoan esanetan, «lehendabiziko esperientziaren ondoren, jendeak badaki zer aurkituko duen azoka honetan, eta erosteko asmo garbiarekin gerturatzen

dira hona». «Estreinakoan, ezjakintasunaren ondorioz, bezeroak ikusmiran, denbora pasa etortzen ziren pilotalekura, baina oraingoan, zuzenean erostera etortzen dira, eta poltsak beteta dituztela ateratzen dira lehen ordutik» gaineratu zuten.

Asteburu honetan azokan on-

dorengo saltokiek hartu dute parte: Pottoko, Kanikak, Top & Top, Mugar, Pasaban, Aralar kirolak, Roncal, Poxpolin umeen arropa, Txalo-txalo, K. A. Internacional, Oski, Oski gaztea, Tantai, V. P. Tapizegia. Aurrera begira, ekimenaren onurak ikusita, honekin jarraitzea espero dute.

262 perretxiko mota aurkitu dituzte egun bakar batean inguruko mendizaleek

Aisia » Alpino Uzturre elkarteak antolatutako ekimenaren baitan, atzo ikusgai izan ziren espezie guztiak, Plaza Zaharrean.



262 perretxiko espezie identifikatzea lortu zuten atzo. E. EZEIZA

E. EZEIZA

Onddoak, gibelurdian, ziza horiak eta barrerriak. Jende gehienak ezagutzen dituen perretxikoak dira, baina hauez gain, ehunka espezie gehiago aurkitu daitezke Euskal Herriko lurretan. Esaterako, Alpino Uzturre elkar-

Erakusketa hau Alpino Uzturre elkarteak antolatu du, bere 50. urteurrenako ospakizun ekitaldien baitan. Atzokoarekin, 70. hamarkadan egiteko ohitura zegoen ekimen bat berreskuratu nahi izan dute. Pasaban, Aranzadiko kidea ren esanetan, «70. hamarkadatik hona asko gutxitu dira perretxikoak, urten batean, egun bakarrean 700 mota aurkitzera ailegatu ginen». Gutxitze horren arrazoitzat, askok, aldaketa klimatikoa aipatzen dute, baina Pasabanen uste-tan, hau faktoreetako bat besterik ez da. Dena den, azaldukoaren arabera, urtetik urtera aldatu egiten dira kopuruak eta jaiotzen diren espezieak. «Aurten esaterako, urte txarra da, eta oso gutxi dira».

Perretxikoen mundua hobeto ezagutu nahian

Aranzadi zientzia elkartearen tasonia lanak egiteaz arduratzen da. Hau da, perretxikoen izenak bilatzen, zein, noiz eta non ateratzen den aztertzen, eta zenbat espezie dauden ikertzen aritzen dira.

Perretxikoak, bizitzeko duten moduaren arabera sailkatuz gero, hiru motatakoak aurkitu daitezke. Alde batetik, zaprofiloak daude.

Talde honetakoak izango lirateke barrerriak. Hauek, deskomposatzaileak dira, eta esaterako, hildako zuhaitz batean jaiotzen dira, fosil gisa geratuz. Bestetik, parasitoak daude. Espezie honetakoak, beste landareen gainean jarri, eta aprobetxatu egiten dira. Landarea bera hil dezaketelarik. Azkenik, mikorrikak daude. Talde honetakoak izango lirateke, onddo, gibeldin eta ziza horiak. Mota honetakoak zuhaitz inguruetan hazten dira, baina ez beraien gainean. Gainera, landare horiei lagundu egiten diete, ez dira besteen kalterako.

Euskal Herriaren ohitura handia dago perretxikoak biltzeko. Ia denek, ondoren jateko asmoarekin biltzen dituzte. Baina, perretxikoen mundua oso zabala da, eta arriskuak ere baditu. Urtero izaten dira intoxikazio kasuak. Askok eta askok ez baitakite, perretxiko jangarrien eta kaltegarrien artean bereizten. Honen aurrean, Pedro Mari Pasabanen gomendioa da, zalantzaren bat dagoenean ez jateko.

Jende ugari joaten da Aranzadira, galdetuz, ea perretxiko bat jangarria den edo ez, eta beraiek laguntzen diete. Beste batzuetan berriz, jandakoan, eta kalte egin ondoren joaten dira gaixoak. Horrelakoetan, sendagaia emateko, perretxikoak bera ikusi ezin dutenez, zer aurkitu nahi zuten galde-tzen diete, intoxikatuei.

teak antolatutako ekimen bat zela eta, 262 perretxiko mota aurkitu zituzten herenegun.

40 lagun inguru ibili ziren Euskal Herriko mendietatik barrena herenegun, ahalik eta perretxiko espezie gehien aurkitzeko asmoz. Hala, aurreikuspenak gaindituz, 262 aurkitu zituzten, eta denak katalogatu ondoren, ikusgai jarri zituzten Plaza Zaharrean atzo.

Ezagutze lan horretan aritu zen Pedro Mari Pasaban, Aranzadiko aditua. Bildutako perretxikoen artean, banaketa egiten eta identifikatzen.

BERRIren edizio digitalaren dizestak/programatzale lanpostua betetzeko pertsona bat behar da. (Enref. 200810 EH-DP)

Honako ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio lengaiaekin eskaintzea izatea.
- XHTML eta CSSrekin marketatzen esperientzia izatea.
- Photoshp eta Flash programak ezagutzea.

Eskaintzen da:

- 12 hilabeteko kontratua liza datekei.
- Lanari berehalako hasiera izango da.

Bidali curriculum gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehatzaz, urriaren 22a baino lehen.

Gaur amaituko dira Berazubiko jaiak, bazkari herrikoia-aren inguruan

Jaiak » Mahaiaren inguruan ospatzen ari dira jaiak; atzo paella, tortilla eta luncha, eta gaur txokolatada.

ASIER IMAZ

Haizea lagun, Berazubi auzoko jaiak egun handia ospatu zuten atzokoan. Hasiera herenegun eduki baldin bazuten, gaur amaituko dira Tolosako auzoetako azken jaiak izango diren Berazubiko aurtengo festak.

Janaria, haurrak eta musika

Jai giroa 12:30ak aldera hasi zen pizten atzokoan, patata tortilla txapelketa eta txakolin dastaketarekin. Ordurako, hurrengo ekitaldia prestatzen hasia zegoen, hau da, paella jatea. Mahaien inguruan 50 bat lagun elkartu ziren 14:00etan. Bazkal ostean jokoan garaia iritsi zen; haurrek euren jolasak eduki zituzten eta helduek berriz mus txapelketa.

Jolasen ondoren txikienentzat ipuinen garaia heldu zen. Gauean, janaren inguruan bildu ziren Berazubiko auzokideak, lunch-a egon baitzen. Egunarekin amaitzeko Disko Festa eta DJ Aizpun-eren emanaldia egon ziren.

Gaur ospatuko dute, beraz, jaien azken eguna.

» EGITARAUA

Urriak 12, gaur

- **06:00etan.** Txokolatada.
- **12:00etan.** Toka Txapelketa.
- **14:00etan.** Bazkaria eta festen bukaera.

'Gure Saltsan' sukaldaritza saioa emitituko dute ostegun eta igandeetan

ERREDAKZIOA

Eskualdeko telebista kateak, 28 Kanalak ostegun eta igandeetan *Gure Saltsan* sukaldaritza saio berria ematen hasiko da: ostegunetan 08:30ean, 12:30ean eta 16:30ean ikusi ahaliko da, eta igandeetan, berriz, 11:30ean, 15:30ean eta 19:30ean emango dute saio hori.

Sukaldariak etorkinak izango dira eta haien jatorrizko lurraldeko platerak prestatuko dituzte. Saioa euskaraz izango da, eta Zarauzko Udaleko Immigrazio Sailak bideratu du.



Paella jatearen inguruan 50 lagun inguru elkartu ziren atzo eguerdian Berazubian. ASIER IMAZ



Mus txapelketaren inguruan, ohiko irudiak: lau jolasean eta hamaika lagun kartei begira. ASIER IMAZ



«Gazteak» azken atxiloketen aurka

TOLOSA » Gazte Mugimenduk eskualdeko elkarretaratzea egin zuen atzo Tolosan, azken atxiloketak salatzeko. Herenegun bi gazte nafar Auzitegi Nazionalaren atarian atxilotu zituzten, Madrilaren euren kabuz aurkeztu ondoren. Bi gazteak inkomunikaturik jarrai-

tzuten zuten atzo. Gazte Mugimendutik azaldu zuten, «atxiloketa bakoitzari erantzuteko hurrengo egunean bertan, eskualde mailako elkarretaratzea egingo dugu, 19:00etan Tolosako Triangulon». Atzo 30 lagun inguru elkartu ziren. A.I.

Egundoko eskaintza eskaini zuen atzoko Tolosako azokak

Azoka » Barazki eta fruituekin batera, iragan astetik hona nabarmen handitu zen perretxikuen zerrenda.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna animosoa suertatu zen, eta aipatzekotan, izugarrizko eskaintza nabarmendu beharko genuke. Ia arlo guztietan izan ziren berrikuntzak. Perretxiko zerrenda asko handitu zen aste batetik bestera, eta mahaletan onddoak, kuletroak, ziza horiak, nikaloak, gibelurdinak eta mendiko angulak nabarmendu ziren.

Fruta zerrenda ere oso polita izan zen. Errezila nagusitu egin da dagoeneko sagarren artean, eta hauekin, mizpiradiak, pikua eta urra berriak ikusi ahal izan genituen. Instaura berria ere izan zen, eta gaztainerkin eta matxakarekin egundoko fruta zerrenda osatu zuten.

Barazkien artean, Tolosako babarrun berria, porruak, azenarioak, azak, azaloreak, eskarola, letxua edo-ta azelgak ikusi ahal izan genituen. Hauekin lekak eta Ibarrako piparrak ere ikusi genituen, baita ere kalitate handiko tomatea, pipar gorria, berdea eta gorri-berdea.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA

PLAZA	Mer.	Gares.
Klabelina	2,80	4,00
Ziklamena	5,50	-
Azalea	8,50	-
Erromeroa	4,00	6,00
Lobelia	4,50	-
Biola	3,00	-
Salbia	1,00	1,20

BERTAKO PRODUKTUAK

Kuletroa	30,00	-
Nikaloa	20,00	-
Mendiko Angula	16,00	-
Gibelurdina	24,00	-
Ziza horia	24,00	30,00
Onddoak	14,00	24,00
Ibarrako piparra	4,00	7,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Porrua	1,00	3,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Baratxuria	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Letxua	1,00	-
Aza	2,50	3,00
Kogoiola	1,00	-
Ahuntz gazta (200 gr)	3,00	-
Ogia (800 gr)	2,55	-
Arraultzak	3,50	-
Azukrea	3,35	-
Arbi morea	4,00	-



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Albiztur.** Udalak haur eskolaren aretoa, udaletxeko ganbaran, nola gelditu den ikusteko aukera eman nahi die herritarrei 12:00etatik 14:00etara.
■ **Anoeta.** Euskal Jaiaren baitan azoka berezia, hainbat postuarekin, 10:00etatik aurrera.

Kirola

■ **Tolosa.** San Esteban auzokide elkarteak antolatuta, XXI. San Esteban krosa 11:00etan. Izen-ematea Shanti Kirolak dendan eta irteeran.

Kultura

■ **Tolosa.** Bertso jaialdia Beotibar pilotalekuan 17:30ean Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Bixente Gorostidi, Aitor Mendiluze, Jon Maia eta Beñat Gaztelumendi bertsoariekin. Gai-jartzailea: Saroi Jauregi.

Jaiak

■ **Ikaztegieta.** Pilar Eguna: meza 11:15ean Andre Mariaren ermitan, ondoren hamaiketako, trikitaliak eta 17:00etan Mus Txapelketa herriko ostatuan.
■ **Irura.** Jubilatuta eta pentsiodunen eguna: 12:00etan Meza nagusia, 14:30ean Jubilatuen bazkaria Za-

harren Biltokian, ondoren jokueta-ko sariak banatzea eta musika dantzagarria zuzenean Joxe Javier Mendizabalekin.

■ **Tolosa.** Berazubi auzoko jaiak: 06:00etan txokolatada; 12:00etan toka txapelketa; 14:00etan bazkaria eta festa bukaera.

Zinema

■ **Tolosa.** *El niño con el pijama de rayas* filma Leidor aretoan. Gaur, igandean 19:30ean eta 22:00etan, eta bihar (ikuslearen eguna), 20:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1.943 67 36 49.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.
■ **Bihar**
■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunik.



«Gustura» lehenengo rallyarekin

AMASA-VILLABONA ● Atzo egin zuten Amasa-Villabona I. Argazki Rallya, eta antolatzaileak «oso gustura» azaldu dira jasotako erantzunarekin. Denera 28 lagunek eman dute izena; horietatik 10 Villabonakoak, eta gainerakoak, Zizurkil, Andoain, Lazkao, Hernani, Zarautz, Urretxu, zumarraga, Beasain eta Ordizia-

tik etorriak. «08:30etarako hasi zen jendea gerturatzeko, eta 09:30ak arte jaso ditugu parte-hartzaileen datuak. Hamaiketako egin dugu denak batera, egin dako argazkiak ordenagailuetan deskargatzen genituelarik. Giro bikaina eta jendea gustura ikusi dugu», azaldu du Idoia Lahidalgalk. HITZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

villabona optika

2008 Umeentzako kanpaina berezia

Betaurreko graduatua egitean, motxila bat opari

Kale Berria 23A
Villabona
Tel.: 943 11 18 40

PEUGEOT 1007

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban Auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tfn: 943-650337 Fax: 943-652938
e-mail: tolosa@tolosa.redpeugeot.com